



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

AZTERKETARIA

LEHEN DEITURA

BIGARREN DEITURA

IZENA

NAN

EGUNA: 2011ko maiatzaren 26a



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

1. ARIKETA: AUKERA ANITZEKO GALDERAK

Honako galdera hauetako bakoitzak lau erantzun ditu aukeran. Aukeratu ezazu erantzun zuzen eta egokiena, eta idatz ezazu amaieran (9. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun horri dagokion letra. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

1. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
 - a) Mesede hori egingo bazenidake, eskertuko nizun.
 - b) Mesede hori egingo bazidazun, eskertuko nizuke.
 - c) Mesede hori egingo bazidazu, eskertuko nizuke.
 - d) Mesede hori egingo bazenit, eskertuko nizuke.

2. *Laranja jaten hasi baino lehen _____.*
 - a) zuritu egiten dugu
 - b) azala ateratzen diogu
 - c) azala zuritzen diogu
 - d) kitatu egiten diogu azala

3. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
 - a) Ez du ardorik ekarri, nahikoa dagoenez.
 - b) Eztu ardorik ekarri, nahikoa baitago.
 - c) Ez du ardoa ekarri, nahiko bait dago.
 - d) Ez du ardorik ekarri, nahikoa dago eta.

4. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
 - a) Mahai-gainean.
 - b) Geltoki ostean.
 - c) Etxeaurrian.
 - d) Zubi-azpian.

5. *Hala _____ ganbaran aurkitu genuen liburu zaharrek.*
 - a) zion
 - b) ziotson
 - c) zioen
 - d) zioten

6. *Zaude lasai, neuk kontatzen _____ istorio hori.*
 - a) ahal dizut
 - b) diezazuket
 - c) nizuke
 - d) diezadakezu



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

7. Alderdi bietakoak akordio batera iritsi _____ zurrumurrua zabaldu da.
- direlakoaren
 - direlaren
 - direnaren
 - diren
8. Honako esaldi hauetatik, aukeratu ezazu zuzena:
- Ezagutzen dut mutil bat bizikletez dena dakiena.
 - Ezagutzen dut mutil bat bizikletetaz dena dakiela.
 - Ezagutzen diodan mutil batek bizikleten gainean dena daki.
 - Ezagutzen dodan mutil batek bizikletetaz dena daki.
9. Kemen handiz _____ ekologistek lanean.
- ari ziren
 - ziharduten
 - zirauen
 - zebiltzan
10. Honako esaldiotatik, zein dago **oker**?
- Hondartza zikin-zikina dagoenez, ez dugu bainatzera joaterik.
 - Hondartza zikin-zikina dagoenez, ezin gara bainatzera joan.
 - Hondartza zikin-zikina dagoenez, ez gara bainatzera joaten ahal.
 - Hondartza zikin-zikina dagoenez, ezin dugu bainatzera joan.
11. Horrelako proba fisikoetarako _____ erabakigarria izaten da.
- gaztetasuna
 - gaztaroa
 - gazteria
 - gaztedia
12. Galdu egin duela? Zer diozu? _____
- Irabazi badu!
 - Irabazi duela!
 - Irabazi egin badu!
 - Irabazi egin du eta!
13. Zergatik egiten duzu hori?
- Zeren nahi dut.
 - Nahi baitut.
 - Nahi dudalako.
 - Nahi dut eta.
14. Lehen soldata jasotzeaz _____ liburutan xahutzea erabaki du.
- bezain azkar
 - gero
 - berehala
 - bat



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

15. *Ikuskizun horrek _____ handia sortu du.*
 a) ikuslego
 b) ikuspegi
 c) ikusmira
 d) ikusmin
16. Honako esaldi hauetatik, zein dago **oker**?
 a) Zure arazoaz hitz egin dugu.
 b) Zure arazotaz hitz egin dugu.
 c) Zure arazoaren gainean hitz egin dugu.
 d) Zure arazoari buruz hitz egin dugu.
17. *Urteekin, lagunak _____ urrunduz joan ziren, ni bakarrik sentitzeraino.*
 a) niretik
 b) niregatik
 c) nitaz
 d) nigandik
18. *Horri buruz _____ ez du idatzi nahi.*
 a) baina
 b) ezezik
 c) baizik
 d) ere ez
19. *Joxeren atorra ez da _____, eta gainera ez duzu _____ eramaten.*
 a) zurea bezala / Joxe bezala
 b) zurea bezalakoa / Joxek bezala
 c) zure modutakoa / Joxerena legez
 d) zure moduan / Joxe bezala
20. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
 a) Amaren eskerrak erdietsi nuen.
 b) Amari esker erdietsi nuen.
 c) Ama esker erdietsi nuen.
 d) Amaren esker erdietsi nuen.
21. Honako forma hauetatik, zein da zuzena?
 a) Hizlaritaz gain.
 b) Urtearen zehar.
 c) Ardoa bilatzera joan.
 d) Kanean behera joan.
22. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
 a) Zenbat eta gehiago ekarri, arren!
 b) Ahalik eta azkarrago etorri!
 c) Ekarrri hori albait arinen!
 d) Ekarrri duguna ezin hoberena da!



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

23. Hitzen ordenari dagokionez, zein da esaldi hauetatik egokiena?
- Etxera etorri dena gizon bat da sonbreiru batekin.
 - Elkartek euskararen alorrean egiten duen lana oso onuragarria da.
 - Gobernuaren politika gizarte ongizateari buruz ez da oso egokia.
 - Oteizak argitaratu duen liburua euskararen jatorriaz asko saldu da.
24. *Akatsak akats, itxurazko lana egin duzula uste dut.*
- Akats asko ditu, baina badu zerbaiten antza lan honek.
 - Akatsak baditu ere, ontzat ematen dut egin duzun lana.
 - Itxurari baino gehiago akatsak ez egiteari begiratu behar zeniokeelakoan nago.
 - Aurkezpena ona da, baina egin duzun lana akatsez beteta dago.
25. *Askotan esaten diogu, baina entzungor egiten du: " _____ , entzungor egiten du."*
- Askotan esandakoan
 - Askotan esateagatik
 - Askotan esatearren
 - Askotan esanagatik
26. *Lortu du gainditzea, _____ asko kostatu _____.*
- nahiz eta / arren
 - nahiz eta / bazaio ere
 - nahiz eta / zaion
 - nahiz / arren
27. Honako esaldi hauetatik, zein **ez** da besteen baliokide.
- Lana di-da egingo dugu.
 - Lana aitaren batean egingo dugu.
 - Lana belaze batean egingo dugu.
 - Lana berehalako batean egingo dugu.
28. *Lorca herrian izandako lurrikaran 8 hildako eta ehunka zauritu _____ dira.*
- gauzatu
 - zenbatetsi
 - eman
 - izan
29. *Mutikoak musuzapia atera eta _____ du.*
- zirri egin
 - zintz egin
 - zotz egin
 - zurru egin
30. Honako esaldi hauetatik, zein dago **gaizki**?
- Ez duzu zertan negar egin beharrik.
 - Ez duzu zertan negar eginik.
 - Ez duzu negar egin beharrik.
 - Ez duzu zertan negar egin.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

31. *Hara heldu _____ sumatzen genuen zerbait.*
 a) momentuan
 b) orduko
 c) momentuko
 d) bakoitzeko
32. *Ospatu aditza zeinetan dago desegoki erabilita?*
 a) Jai batzordeak bihar ospatuko du urteko bilera.
 b) Herenegun ospatu genuen amaren urtebetetzea.
 c) San Jose eguna ospatzeko arkumea jango dugu.
 d) Lortu duzun lanpostu berria ospatzeko xanpaina erosiko dugu.
33. *Hori sinetsarazi _____ mutilak ez daki maite _____.*
 a) didan diodala
 b) nauen diodala
 c) didan dudala
 d) nauen dudala
34. *Gaur erosi behar ditudanak: bi dozena _____, lau _____ eta _____ eder bat.*
 a) arraultz jogurt lebatz
 b) arraultze jogur legatz
 c) arraultza yogur lebatz
 d) arrautza jogurt legatz
35. *Bihar goizean _____ dut, eta goiz joango naiz ohera.*
 a) saskibaloira jolastuko
 b) saskibaloiera jokatuko
 c) saskibaloia jolastuko
 d) saskibaloian jokatuko
36. *Noiz jaio zen zure alaba? _____.*
 a) 2011eko martxoak 31ean
 b) 2011.go martxoak 31an
 c) 2011eko martxoaren 31ean
 d) 2011ko martxoaren 31n
37. *Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?*
 a) Aizkorriko arkaitzaren ondoan hauntzak zebiltzan larrean.
 b) Aizkorriko arkaitzaren hondoan ahuntzak zebiltzan larrean.
 c) Aizkorriko harkaitzaren ondoan ahuntzak zebiltzan larrean.
 d) Aizkorriko harkaitzaren hondoan hauntzak zebiltzan larrean.
38. *Honako forma hauetatik, zein dago **gaizki** idatzita?*
 a) Nondik-nahi.
 b) Nola nahi.
 c) Zernahi.
 d) Zenbanahi.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

39. Honako esaldi hauetatik, zein da ortografiaren aldetik zuzena?
- Etzi, ziur aski, Mikelekin elkartuko gara.
 - Etsi, ziur azki, Mikelekin elkartuko gara.
 - Etzi, siur azki, Mikelekin elkartuko gara.
 - Etsi, zihur aski, Mikelekin elkartuko gara.
40. Honako esaldi hauetatik, zein da ortografiaren aldetik zuzena?
- Zure ihardunbidea ez da zuzena.
 - Zure ihardutzeko bidea ez da zuzena.
 - Zure jardunpidea ez da zuzena.
 - Zure jardunbidea ez da zuzena.
41. Nola esaten zaio bere iritziari gogor eta tinko eusten dionari?
- setatsua
 - adeitsua
 - petoa
 - kementsua
42. Zer hitz bikote **ez** da egokia?
- lagun hurkoa
 - ordainsari ikaratia
 - ordeka zabala
 - larruazal guria
43. Honako esaldi hauetatik, zein da ortografiaren aldetik zuzena?
- Hauxe duzu alferrik josten ahalegindu naizen oihala.
 - Hauxe duzu alferrik josten alegindu naizen oihala.
 - Hauxe duzu alperrik jozten ahalegindu naizen oihala.
 - Hauxe duzu alperrik josten ahalegindu naizen oihala.
44. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena?
- Ez dezazula lurran utzi; jar ezazu apal hortan.
 - Ez ezazu lurrean utz; jar ezazu apal horretan.
 - Ez utzi lurrean; jarri apala horretan.
 - Etzazula utzi lurran; jartzazu apala hortan.
45. Zer esalditan daude komak zuzen erabilia?
- Entzun Jauna, gure eskaria, berandu bada ere.
 - Nik, egia esan ez dakit, baina saiatuko naiz.
 - Gasteizen, nik dakidala, 240.000 pertsona bizi dira, ez gehiago.
 - Egia da agian, ez dutela ekarriko.
46. *Bi bikote auto banatan etorri dira, eta gizonetzko bat, berean:*
- Honako hauek etorri dira: Ana, Mikel eta Jon, Ana eta Julian.
 - Honako hauek etorri dira: Ana, Mikel eta Jon eta Ana, eta Julian.
 - Honako hauek etorri dira: Ana eta Mikel; Jon eta Ana; eta Julian.
 - Honako hauek etorri dira: Ana eta Mikel eta Jon eta Ana, eta Julian.



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

47. Aukeratu ezazu zuzen idatzita dagoena.
- a) Italiar penintsula
 - b) Italiar Penintsula
 - c) Britaniar penintsula
 - d) Britainiar Uharteak
48. Nola esaten zaio adore gutxikoari, ezeri aurre egiteko gauza ez denari?
- a) kikila
 - b) ahalkea
 - c) harroputza
 - d) apetatsua
49. Honako esaldi hauetatik, zein da zuzena euskara batuan?
- a) Horko jatetxe batetan oso serbitzu ona dago.
 - b) Batzuk lagun ezin hobean bilakatu zarete.
 - c) Pertsona batzuek beti botatzen dituzte egia biribilak.
 - d) Batzuek irtetzea denbora alferrik galtzea da.
50. Zinemarantz zoazela, lagun bat aurkitu duzu. Honela galdetu diozu:
- a) Zatoz nirekin?
 - b) Bazatoz nirekin?
 - c) Etortzen zara nirekin?
 - d) Zatoz ba nirekin?



Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

ERANTZUN-TAULA

1	11	21	31	41
2	12	22	32	42
3	13	23	33	43
4	14	24	34	44
5	15	25	35	45
6	16	26	36	46
7	17	27	37	47
8	18	28	38	48
9	19	29	39	49
10	20	30	40	50

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK (2011KO MAIATZAREN 26a)

2. ARIKETA: IRAKURRIAREN ULERMENA

Irakur itzazu ondoko orrietako hiru testuak. Testu bakoitzaren amaieran, hari buruzko galdera batzuk dituzu, aukeran erantzun batzuk dituztenak. Aukeratu ezazu galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra eta adieraz ezazu amaieran (15. orrialdean) dagoen erantzun-taulan erantzun zuzenari dagokion letra. Ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik.

1. TESTUA

Neandertalak, gugandik ez hain desberdinak

Science aldizkariak 2010eko maiatzean argitaratu zuen neandertalaren genomaren analisia, artikulua gehigarri batekin batera. *Sciencen* aurkeztutako lanaren arabera, neandertalaren genomaren % 60 sekuentziatu zuten. Gero, gaur egungo bost pertsonarekin alderatu zuten. Hala, ikusi zuten gaur egungo gizakiek neandertalen gene batzuk gordetzen zituztela haien genometan, afrikarrek izan ezik.

Hori azaltzeko hipotesi sinesgarriena da neandertalak eta gaur egungo gizakiaren arbasoak gurutzatu egin zirela, hauek Afrikatik atera ondoren eta Eurasian hedatu aurretik, Asia Hurbilean. Azterna arkeologikoak bat datoz kalkulu genetikoekin. Hala ere, hibridazioa nahiko mugatua izan zela uste dute ikertzaileek.

Ez zen, dena den, ikerketa hartatik ateratako ondorio bakarra izan. Ezta azkenaldian neandertalen gainean egindako ikerketa garrantzitsu bakarra ere. Esate baterako, neandertalak haragijale hutsak zirelako ustea ezeztatzen duen artikulua bat argitaratu dute, eta Irakeko eta Belgikako haitzulo banatako neandertalen hortzetako arrastoetan oinarritu dira beren ikerketa egiteko: landareak beren dietaren parte zirela frogatu dute. Landare eta hazi haietako batzuk gaur egun ere jaten dira, eta, gainera, sutan egin zituztelako aztarnak aurkitu dituzte. Horrenbestez, inguruan zituzten landare jatekoak aukeratzeko eta digeritzeko errazagoak izan zitezten haiek eraldatzeko gai zirela baieztatu dute ikertzaileek. Gure arbasoek egiten zuten bezalaxe, hain juxtu.

Uste horretakoa da, adibidez, Joseba Rios arkeologian doktorea. Oso garrantzitsua iruditzen zaio neandertalak desagertu ondoren zer gertatu zen jakitea, neandertalei buruzko informazioa behar bezala interpretatzeko. Dioenez, "hasieratik, neandertalak beti gurekin alderatu ditugu; alderaketa horretatik ateratako ondorioak dira neandertalez dugun ikuspegiaren oinarria. Hortaz, eboluzionismotik etorritako aurreiritzi asko daude. Lehen pentsatzen zuten: espezie hori desagertu egin zen, eta, beste batek, gureak, aurrera egin du. Horrek esan nahi du gu hobeak garela. Ikuspuntu horretatik, ulertzekoa da neandertalak izaki primitiboak eta gutxi garatuak zirela uste izatea".

Asko eztabaidatu da neandertala *Homo sapiens* espeziearen subespezie bat den, edo *Homo* generoaren espezie bereizi bat, baina oraindik ez dago erabateko adostasunik. Riosen iritziz, nondik begiratzen zaion da kontua: "Espezieak bereizteko, paleontologian eta paleoantropologian, hezurren morfologiari begiratu zaio, eta, alderdi horretatik, ez dago inolako zalantzarik espezie desberdinak direla. Genetikaren aldetik, ordea, ez dago hain garbi, inondik inora ere. Baina genetika ez da inoiz erabili espezieak bereizteko".

Edonola ere, azken urtetotan genetikak ekarpen handiak egin ditu, eta emaitza batzuek aparteko oihartzuna izan dute, nahiz eta, batzuetan, ez diren erabakigarriak izan. Adibidez, FOXP2 genearen

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK (2011KO MAIATZAREN 26a)

gure aldaera berbera zutela frogatzeak neandertalen hitz egiteko gaitasunari buruzko eztabaida berpiztu zuen.

Hala ere, Riosek ez du zalantzarik hizkuntzari buruz: "Neandertalek transmisio kultural konplexua zuten, adibidez, harria lantzeko tekniketan. Eta 200.000 urte baino gehiago iraun zuen, eta moldaketak egon ziren, garapen historiko bat... Horretarako, ezinbestekoa da hizkuntza bat izatea. Beharbada beste era batera hitz egingo zuten, baina gure artean ere hizkuntza-aniztasun handia dago, eta denak dira hizkuntzak. Bada, haiek ere izango zuten berea".

Ana Galarraga Aiestaran, 2011/03/01

1. *Science* aldizkarian argitaratutako neandertalaren genomaren analisisan ...
 - a) ... bost pertsonak hartu zuten parte, baina afrikar batek ere ez.
 - b) ... sekuentziatutako genomaren %60 horretan, Afrikako, Asiako eta Eurasiako aztarnak daude.
 - c) ... frogatuta geratu da gizakiak neandertalen geneak dituela, hibridazioa orokorra izan zelako.
 - d) ... argi geratu da afrikarrek ez zutela zerikusirik izan neandertalekin.
2. Neandertalen elikadurari buruz, honela dio testuak:
 - a) Gure arbasoek egin bezala, neandertalek ere gertatu egiten zituzten landareak nola edo hala.
 - b) Adituen orain arteko ustearen kontra, neandertalek haragia jaten zuten, batez ere.
 - c) Landareren bat digerigaitza edo astuna bazen, erabat aldatzen zuten.
 - d) Inguruan zituzten landare jatekoak besterik ez zuten jaten.
3. Ikertzaileak neandertalen hortzetako arrastoetan oinarritu dira ...
 - a) ... haragijale hutsak zirela eta sua ezagutzen zutela esateko.
 - b) ... egun jaten ditugun zenbait hazi eta landare euren dietan zeudela baieztatzeko.
 - c) ... hibridazioa nahiko mugatua izan zela baieztatzeko.
 - d) ... irauten duten espezieak desagertu direnak baino hobeak direla esateko.
4. Joseba Riosen iritziz, gaurko ikertzaileak bat datoz esatean ...
 - a) ... neandertalak Homo Sapiens espeziearen subespezie bat izan zirela.
 - b) ... paleontologiak eta paleoantropologiak genetika erabiltzen zutela espezieak bereizteko.
 - c) ... espezieak bereizteko hezurren morfologiak berme handiagoa duela genetikak baino.
 - d) ... genetikaren azken urteotako ekarpenek emaitza erabakigarriak ekarri dituztela.
5. Joseba Riosen ustez neandertalek FOXP2 genearen gure aldaera berbera zutela frogatzeak argi uzten du ...
 - a) ... elkar ulertzeko nolabaiteko hizkuntzaren edo sistemaren baten jabe zirela.
 - b) ... gaur egungo gizakiak bezala hitz egiteko gaitasun osoa zutela.
 - c) ... subespeziearen kontu hori guztiz ezeztatuta gelditzen dela.
 - d) ... era askotariko hizkuntza-aniztasuna izan zutela 200.000 urtean baino gehiagotan.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK (2011KO MAIATZAREN 26a)

2.TESTUA

IZARREN HAUTSA

36ko gerraren garaian, Saturrarango espetxean emakume asko sartu zituzten beren seme-alaba txikiekin. Borrokalarien familiak izan ziren frankisten basakeriaren jomuga, herritarren aurkako mendeku eta errepresalien adierazpide izanik. Zine-aretoetan film bat aurkeztu dute oraintsu, *Izarren Argia*, gertakari hura kontatzen duena. Gure adinekook frankismoa zer zen ezagutu bagenuen ere, filmak bere eszena beldurgarriekin erakusten duenak hunkitu egiten gaitu.

Gure agintariak saltzen digutenaren kontra, eta zentzugabeki barneratu dugunaren kontra, oroimen historikoaren adierazpide horiek ezinbestekoak dira gizartea egituratzeko. Behar ditugu, kolektibitatearen funtzionamendu osasuntsua nahi badugu. Balcells-ek dioenez, «gizarte batean ez dago oinarrizko barne-kohesiorik identitate kolektiboa aintzakotzat hartu gabe». Eta, sinpleki esanda, «ez dago identitaterik memoriarik gabe».

Memoriak, identitateak, historiak... ekuazio disolbaezina osatzen dute, horregatik du garrantzi handia gure sentzibilitate lokartuan eduki lezakeen eragin pizgarriagatik. Saturrarango historia benetako gertakari frogatueta oinarritzen da, eta oraindik bizirik daude egoera sinestezin hura zuzenean jasan zutenetako batzuk edo haien ahaideak. Zirkunstantzia haietan, aipagarria da zuzendaritzak gosez egiten zuen erabilera zitala, menperatzeko arma gisa, emakume preso errepublikanoen borondatea makurrarazteko. Nahita eragindako gose haren ondorioz, desnutrizioak sortutako gaixotasunek 56 ume hil zituzten, kopuru lazgarria. Baina hori ez da izugarrikerien kapitulu bakarra. Presoak hiltzea (116 emakume), Jainkoaren karitatearen mirabe omen ziren mojen doilorkeriaren eta zigorren ondorioz, haurrak amei lapurtzea beste familia batzuei adopzioan emateko...

Askotan komentatu izan dugu gure oroimenean ditugun istorioen oparotasun izugarria. Gure iragana aberatsa da gertaera, pasadizo, abentura eta abarretan. Istorio tragikoak, tristeak, heroikoak, lazgarriak, dibertigarriak, zorrotzak... Ahozko memoriak, idatzizkoak eta dokumentatuak baino gehiago (askotan desitxuratua edota isilarazia izan baita hori), narrazio-balio handiko gertakari asko jaso ditu.

Pozten naiz *Izarren Argia* gure zeruan agertu delako, gure imajinariarik goibeleneko itzaletan bada ere. Nahiko nuke Xabier Letek proposatzen zuena izango balitz, hau da, *Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai*...

Angel Rekalde (Idazlea), Berria, 2010eko azaroaren 8a (moldatua)



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

6. *Izarren Argia* filmak ...
 - a) Oroimen historikoak aspaldi barneratu dituen gerrako pasarte ezagunak kontatzen ditu.
 - b) Gure iraganaren benetako pasarte bat gordinki kontatzen du.
 - c) Gizartea zatikatzen laguntzen du bere eszena beldurgarriekin.

7. Saturrarango gertakariak direla eta, azpimarragarria da...
 - a) Orduko egoera bizi izan zuten asko oraindik bizirik egotea.
 - b) Moja doilorrek ere errepublikarren aurka armak hartu izana.
 - c) Gerraren garaileek zer jokabide izan zuten ahulenak menperatzeko.

8. Iraganekoak aintzat hartuta, gure memoria egituratzeko...
 - a) Beharrezkoa dugu hainbat gertakariren bilduma egitea.
 - b) Ezinbestekoa dugu Xabier Leteren hitzei erreparatzea.
 - c) Nahitaezkoa da idatzizko ondarea arreta handiagoz zaintzea.

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK (2011KO MAIATZAREN 26a)

3.TESTUA

Komikia

Hurtzarotan nonahitik edaten dugu gure estruktura morala osatzeko orduan. Etxean eta eskolan esaten digutenetik, kalean entzundakotik, ipuinetatik, pelikuletatik... Nire belaunaldiak Superman edo El Capitán Trueno bezalako komikietatik jasoa du zein den bilania zitaletan zitalena: nork bere burua babesteko, emakume bat ezkutu gisa baliatzea...

Osama Bin Ladenen akaberaz kontatu digutenak antz handia du komiki baten egituratik. Komiki baterako osagai apartak dira erasoaren nolakoa, hilketa, gorpua itsasora jaurti izana... Baina osagai narratibo guztien artean deigarriena, Bin Ladenek emakume bat baliatu izana ezkutu gisa. Beste zerk azpimarratuko luke gardenago terrorista bilatuenaren koldarkeria guztizkoa?

Komikiaren itxura handiagoa emateko —eta historian zehar indioekin egin zutena gogoan— Bin Ladeni Geronimo deitu zioten operazio osoan zehar.

«Obamak Osama menderatu zueneko» izeneko komiki bat oparitu digute, noiz eta Supermanek uko egin dionean estatubatuar identitateari, Obamak frogatu behar izan duenean berea.

Hurtzat gauzkate.

Anjel Lertxundi (BERRIA, Hitz beste, 2011-05-04)

9. Zer da garrantzitsua umetan zentzumena garatzeko orduan?
 - a) Nonahitik edatea, batez ere hedabideetatik eta komikietatik.
 - b) Hainbat lekutan hartzen diren erreferentziak, batez ere etxean eta eskolan.
 - c) Idazlearen belaunaldian *Superman* eta *El Capitan Trueno* bezalako komikiak.

10. Zer irakaspen aterako zenuke Anjel Lertxundiren zutabe hau irakurrita?
 - a) Emakume bat ezkutu gisa baliatzea koldarkeria handietan handiena dela.
 - b) “Obamak Osama menderatu zueneko” komikiak arrakasta handia lortu duela.
 - c) Estatubatuarrek uste dutela umeak bezala engaina dezaketela mundu guztia.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

IRAKURRIAREN ULERMENA: ERANTZUN-TAULA

1	2	3	4	5
6	7	8	9	10



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK (2011KO MAIATZAREN 26a)

3. ARIKETA: IDAZLANA

Egin behar duzun idazlanak 250 hitz izan behar ditu gutxienez. Mesedez, idatz ezazu boligrafoz eta gogoan izan ezazu azterketa egiteko duzun denbora. Amaitzean, eman iezaiezu azterketa osoa aztertzaileei. Idazlana egiteko A edo B hautatu behar duzu, eta aukera horietako bat garatzeko, hurrengo orrialdean dituzun gaietako bat hartu behar duzu (nahi duzuna, zerrenda osoan). Ezinbestekoa da gai horri ongi lotzea idazlana garatzean. Idazlana euskara batuan egin behar da.

A) Unibertsitateko lankide batek laguntza eskatu dizu. Irakasle talde bat **aldizkari bat** ari da argitaratzen unibertsitateko ikasleentzat, baina artikulua faltan egoten dira maiz. Hori dela eta, zure jakintza-arloko gairen baten berri eman dezazun eskatu dizute artikulua batean. Gogoan izan ikasleentzat ari zarela idazten, zabalkunde lanean alegia (ez testu akademikoa prestatzen). Hala nahi izanez gero, zeure iritzia ere plazaratu dezakezu, aukeratu duzun gaiaren inguruan.

B) Eskolako apunteak prestatzen ari zara eta gai baten inguruko azalpenak idatziz eman nahi dituzu, ikasleen eskura jartzeko. Gai bat orokorki azaldu eta hainbat zehaztasun emango dituzu, edo gai horren azpiko gai zehatzen bat polikiago aztertuko duzu, ikasleei azalpen argiak emateko.

OHARRA:
IDAZLANAREN GAIAK, HURRENGO ORRIALDEAN


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
 (2011KO MAIATZAREN 26a)**

ARLOA	GAIAK	
Arkitektura	Zerk eragiten du etxebizitzaren salneurrien igoeran?	Gasteizko Katedralaren zaharberritzea.
Artea	Euskal museoen egungo egoera.	Zer da artea? Nola definituko zenuke eta nola azalduko zenioke artista ez den bati artea zer den?
Biologia	Ekosistemak.	Taxonomia: nola sailkatzen dira izaki biziak?
Ekonomia	Burtsa.	Ekonomia-ekitaldi bateko urteko kontuak.
Filologia	Hizkuntza erromanikoak.	Itzulpen-lana: <i>traduttore traditore</i> .
Filosofia	Filosofia lehen eta bigarren mailako irakaskuntzan.	Aro Berriko Filosofiaren Historia.
Fisika	Hidrostatika: Arkimedesen printzipioa.	Energiaren kontserbazioa.
Geografia	Gaur egungo munduaren geografia ekonomikoa. Nola dago banatuta eta antolatuta mundua?	Paisaiaren aldaketa giza ekintzaren ondorioz.
Geologia	Lorca lurrikara gogor batek astindu berri du: ezin izango ditugu aurreikusi lurrikarak?	Glaziarrak.
Gizarte zientziak	Demografia arazoak.	Parte-hartze politikoa eta hauteskundeak.
Heziketa fisikoa	Jarduera fisikoa eta emakumea.	Heziketa fisikoa irakaste metodoak.
Historia	Erromatar inperioa.	II. Mundu Gerra. Zergatik sortu zen? Zer ondorio izan zituen?
Informatika	Konputagailuen bidezko grafikoa eta filmak.	Datu-baseak.
Informazioa	Eten digitala. Internet gabeko herrialdeak eta herrialde digitalizatuak.	Izan daiteke objektiboa irratia edo egunkari bat? Kazetaritzaren objektibotasuna.
Kimika	Industria kimikoa gaur egun.	Fukushimako zentral nuklearrean gertatuak zer ondorio ekarriko ditu?
Matematika	Funtzio esponentzialak eta logaritmoak.	Matrizeak eta determinanteak.
Osasuna	Zer jakin behar luke hiritar arruntak giza anatomia eta fisiologiaz?	Medikuaren eta pazientearen arteko harremana gaur egun.
Pedagogia	Bizikidetzeta eta eskola.	Ikaste-irakaste prozesuaren osagaiak.
Psikologia	Psikoanalisi.	Terapia berriak: musika-terapia, barre-terapia...
Teknologia	Komunikazio analogikoak eta digitalak.	Meataritza.
Zuzenbidea	Konstituzioa.	Oinordekotza.



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

ARLOA:

IDAZLANAREN IZENBURUA (GAIA):

AUKERA (A edo B):



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**



Universidad Euskal Herriko
del País Vasco Unibertsitatea

EUSKARA ZERBITZUA

**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**



**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**

**EZ IDATZI EZER ORRIALDE HONETAN
AZTERTZAILEEK ERABILTZEKO ORRIA**

UPV/EHUko EUSKARA-PROBA. ZUZENKETA-ORRIA (1):

AZTERKETARIA: **NAN:**

Zuzenketa-orria

Aukera anitzeko galderen proba

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 32)		EZ GAI (< 32)

Irakurmena

Zuzenak:	Okerrak:	Zuriak:
GAI (≥ 6)		EZ GAI (< 6)

Idazlana

GAI	EZ GAI
-----	--------

AZTERKETA IDATZIA: GAI / EZ GAI

Oharrak

Lehen zuzentzailea

Bigarren zuzentzailea

AHOZKO AZTERKETA

GAI	EZ GAI
-----	--------

Oharrak

1. aztertzailea

2. aztertzailea

3. aztertzailea


**UPV/EHU-N EUSKARAZ IRAKASTEKO GAITASUN-AGIRIKO PROBAK
(2011KO MAIATZAREN 26a)**
**UPV/EHUko EUSKARA PROBA. ZUZENKETA-FITXA (2)
<EZGAI> DIREN AZTERKETETAN BETETZEKO**

 Azterketaria:
 (Markatu X batekin azken zutabeen zein arlotan ez den gai azterketaria)

IDATZIA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Edukia	ez dio heldu emandako gaiari	4.2.3. (a)	
Moldea		4.2.3. (b)	
	esaldi sinpleegiak; gutxi idaztea		
	erregistro desegokia		
	joskera desegokia		
	lexiko desegokia		
	lanaren egituraketa eskasa (kohesioa eta koherentzia)		
Zuzentasuna		4.2.3. (c)	
	ortografia gaizki		
	euskara batua ez ezagutzea edo errespetatzea		
	deklinabideko huts nabarmenak		
	aditza gaizki erabilia		
	joskera okerra		
Akatsak		4.2.3. (d)	
	mezua ulergaitz bihurtzen dute		
	akats larriak eta ugari		
Beste batzuk			

Oharrak:

AHOZKOA

Atala	Oharrak	Irizpideak (AKTA)	(X)
Azalpena		4.3.2. (1.a)	
	jario falta		
	ez du azalpena ongi antolatzen		
	ez da gai azalpen zehatzak emateko		
Zuzentasuna		4.3.2. (2.a)	
	egitura okerrak edo traketsak erabiltzen ditu		
	ahoskera eskasa		
Moldea		4.3.2. (3.a)	
	ez da gai euskara batuan jarduteko		
	ez da gai hizkera zaindua erabiltzeko		
Beste batzuk			

Oharrak: